


Ezpalak

JON TORNER

Zuzeu.com-ek urtebete



ZUZEU.COM albistariak kazetaritzaren etorkizunari buruzko mahai-ingurua grabatu zuen bere lehen urtebetetzea ospatzeko. Xabier Letonak (ARGIA), Martxelo Otamendik (Berria), Nerea Azurmendik (Vocento) eta Gorka Juliok parte hartu zuten, Pili Kaltzada kazetariaren gidaritzapean. Modu berezian grabatu zuten, erabiltzailea errealizadore bihurtzen duen 360 graduko formatuarekin. Mahai-inguruaren bideoak Zuzeu.com-en daude ikusgai.

Animabasaurik Erresuma Batua izango du aurten gonbidatu



ANIMABASAURI-ANIMABASQUE nazioarteko animazio zinema jaialdiaren 6. edizioa hilaren 23tik 30era egingo dute. Erresuma Batua izango

da aurtengo herrialde gonbidatua eta atzera begirako bi ziklo eskainiko dituzte: Maite Ruiz de Austri gasteiztarrari eskainitakoa eta Claudio Biern Boyd katalanaren obrei buruzkoa. Guztira hamar film lehiatuko dira (*In the Attic*, *The Watercolor* eta *Winnetoons*, besteak beste) eta erakusketak, haurrentzako emanaldiak eta animazio eskolen lanei eskainitako sailak izango dira.

Asier Mendoza Etxabe idazle zarauztarraren *Bestegu* nobelak irabazi du Mikel Zarate haur literaturako saria. Banpiroei buruzko lan hau nabarmendu du Leire Bilbaok, Julen Gabiriak eta Xabier Mendigurenek osatutako epaimahaiak, eta berak eramango du 3.000 euroko saria. Liburua, berriz, udazkenean kaleratuko du Elkar argitaletxeak.

Katixa Agirre gasteiztarrak *Patzikuren problemak* liburua plazaratu du. Patzikuren etxean beste haur bat jaioko da, neskato bat, eta arazoak hasiko dira Patzikurentzat. Bestalde, Pello Añorga oiartzuarrak *Potto-ko hipermerkatuan* aurkeztu du. Zortzi urtetik gorako haurrei zuzendutako bi liburu horiek Elkarrek argitaratu ditu, *Xaguxar* bildumaren baitan.

Doctor Deseo taldeak disko berria plazaratu du: *Deseo: cartografía imposible* (Baga-Biga). Hilaren 23an Gasteizko Jimmy Jazz aretoan aurkeztuko dute diskoa, eta 24an Atarrabiako Totem aretoan. Madril etaartzelona abiatuko dira handik.

● **Memo taldeko kideek Entzun.com-en esana:** «Guk nahiago dugu etiketez paso egitea. Momentu jakin batean lagungarri suerta daitezke gerturatze bat egiteko, baina galbahea ere bihur daiteke. Aukerarik onena entzutea da eta gero, jakinaren gainean, juzgatzeta. (...) Guretzat, punka ez da musika bakarrik. Punka ostia txarra da, inkonformismoa, ezarritako boterea zalantzan jartzea. Halaxe jaio zen eta hori da irau behar duen punka, gainontzekoa moda da eta, ondorioz, negozioa».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

Atxurra Hotela

Arronategi auzoa z/g
Bermeo (Bizkaia)
Tel. 944 654 404
www.hotelatxurra.com

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Irla izan, zebra izanda

Anari: *Irla izan* (Bidehuts, 2009); *Zebra* (Metak, 2005)

JOSÉ LUIS PADRÓNEK gaztigatu zidan *Bakardadea izan* artikulua irakurtzean. Idazlearen ttakun hotsek nire baitakoa herren nuela oroitarazi zidan. Anarirengana bide egin behar nuela gogorarazi zidan. Musikaria nigana etorri gabe, bideak eta denborak bat egiten duten unea ediren behar nuela, Anari deskubritu behar nuela hots. Ezaguna nuen musikaria. Behinola, lana dela medio, entzuna ere, bere ahotsa telefonoz entzuna diot. Ez dut behin ere izan parez pare, ez kontzertuan entzun ere. Plazaratu zenerako musikan barrena nire bidaia-bizkar-zorroa mukuru beteta neukan. Musikarekiko irrikaren zakuan beti dugu lekuño bat, ordea.

Anari eta Pettiren CDa zen apalategian neukan bakarra. *Anari* eta *Habiak* CDetako piezaren bat edo beste uhinetatik neureganatuak nituen. Neureganatuak baino, doi-doi jasoak. Dendara egin nuen bide. Xabi agurtu nuen. Zine eta musika obretara hurbiltzen laguntzen nau Xabik. Hurbildu eta zerbitzatu. Anariren diskografia begiratu genuen, bere obra, hots. Hura lotsa! “Artisten lanei gor egiten –erosteari gor– segitzen ote dugu/dut?” pentsatu nuen. Artisten obrak eraikin lan arruntak bailiran agertzen ote dira nire bidean?

Anariren obran atzekoz aurrera sartzea erabaki nuen: *Irla izan* eta *Zebra* bizkarraratu nituen. Haren azken obraren ertzaz ertz ibili naiz harrezkero. Haren icebergaren tontorrean nabil orain. Besoa eskaini dit eta eskua hartu diot. Haren doinuen zirimolan mozkortu naiz, ez nau ito alabaina. Arraina bihurtu nau bere aireen zirimolak. Bideak eta denborak bat egin duten unean, itolarrian nagola, irla bat eskaini dit: “...behin lo nengoela, begiak ireki zizkidan eta itsaso lehor bat ikusi zidan, eta begietan arrain bat idoro zuen”. Zeini jaten eman, hura hazi. Hasperen luzez, denbora geldituz, beti sentitu dut edonon naizela. Anariren amildegiaren ertzean nabil, haren galderak atzetik bultzaka ditudala. Bere irlan zebra bihurtu nau. Irlan aingura bota dut: “...oroimena da urperatzen nauen beruna, ametsa gorantz naraman zama astuna, aingura hegoduna”. Bere irlan sustraiak bota dituen naufragoa naiz. *Desertuan*. (*H)egoak* eta *Txori beltzak* agurtzen dituen zebra naiz ni ere. *Ateak ireki* eta *Harresiak* bota nahi dituen zebra.

Hara, zebra ezezik, zozoa naiz. Testu(aren) (h)onetarako ostutako hitzak bereak zirela oraintsu arte ezagutu gabe nintzen-eta. Zebra zozoa naiz. ■



Atxaspi Hotela



ametsetan bezala.

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536
hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com